

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

#### Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren 2024ko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko udal Zergaren 2024ko ekitaldiko errolda egin da, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, aztertu eta egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da eta zerga kobratuko da.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzeko epea:

a) Borondatezko epea: 2024ko otsailaren 26tik apirilaren 26ra.

b) Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2024ko otsailaren 27an.

c) Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunen zerga egoitzetara bidaliko dira, jaso agiri baten bidez, eta ordainketa Kutxabanken edo Laboral Kutxaren bulegoetan egin beharko da, edo udalaren egoitza elektronikoaren bidez, "Nire ordainketa" atalean.

Zergadunei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Bestalde, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Iruraiz-Gaunako Udalean izapidetu beharko dira.

Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian ordaintzeko epea amaitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko direla, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak Orokorrak 28. artikuluan eta uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, eta dagozkion errekargu eta berandutze interesak ere kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2024ko urtarrilaren 22a

Alkatea

IRATXE DEL BARCO MURUA